



Eman hegoak euskarari



Azkar ibili moteltasunez

Merkatua bihurtu da gure jainko berria, gure asmo estetiko eta moral berria, denaren neurgailua

ARITZ GORROTXATEGI

L atinez, 'otium' hitzaren antonimoa 'negotium' litzateke. Hau da, aisialdirik eza. Denborarekin, 'otium' hitzari, aisialdiari, hasieran berezkoa ez zuen zama negatibo bat pilatu zaio, nagikeriarekin edo denbora galtzarekin zerikusia duena. Baina ez zen horrela hasieran. Izan ere, gogetarako edo ikasketarako denbora libretzat hartzen zen. Garai digitalean, badirudi desabantailan geratu direla garuna eta pentsamendu lasaia eraginkortasunaren eta azkartasunaren aldean. Pentsatu baino gehiago, publiko egiten ditugu gure afinitateak eta gustuak, gure ezinikusiak eta fobiak. Dena klik batean. Lamberto Maffei neurobiologoaren ustez, biologiarekin lehian dabilen gizarte bat, borroka hori

galtzera kondenatuta dago. Labur eta argi azaltzen ditu gaiaren inguruko bere kezkek 'Alabanza de la lentitud' saiakeran (Alianza argitaletxea). «Geldotasunaren estrategiarekin zahartzen gara», dio Maffeik. Garunak hasieran duen plastikotasun hori, dena xurgatzeko erraztasun hori, motelduz doa pixkanaka, giharrak eta nerbio-sistema sorgortuz doaz, zirmurtuz. Teknologiarik esker, gizakien arteko komunikazioa bizkortu da, baina neuronek berdin-berdin jarraitzen dute. Alferrrik da guk asmatutako makina horien azkartasuna imitatu nahi izatea, ahalegin hori estutasun eta etsipen iturri bihurtzen baita guretzat.

Hemisferioen arteko harremanak aztertzen ditu hurrena Maffeik, denboraren zentzua,

pentsamenduaren gorabeherak. Pentsamendu azkarra eta pentsamendu geldoa. Noiz den eraginkorra bat, eta noiz bestea. Akiles pentsamendu azkarrekoa zela esan daiteke, eta kontrakoak, berriz, Ulisesi buruz. Zerbaitegatik esaten zioten azken honi 'trikimailu askokoa', 'amarrutsua'. Egin beharrekoak behin baino gehiagotan pentsatzen zituelako. 'Frankenstein'ek, '2001 Espazioko Odisea bat'ek, 'Momo'k edota 'Matrix'ek aspaldi iragarri ziguten gizakiak asmatutako teknikak tirano zurrun bihurtu daitezkeela. Nor dago noren ordez pentsatzen? Non geratzen da gizakiaren askatasuna ekuazio horretan?

Bizitza modernoaren eta pentsamendu azkarraren errit-

moek alde batera uzten dute pazientzia, bertuterik heroi-koena, heroikotasun itxuririk batere ez duelako. Zenbat irakaslek errepikatzen diote beren buruari egunero: «Eman pazientzia, eta ez amorrua». Hogeigarren mendeko aurrerapen teknologikoak erritmo mantsoagoan eta moldagarriagoan iritsi zitzaizkigun, hala nola irratia, hozkailua, garbigailua, telebista... Pixkanaka heldu ziren, eta haien erabilera jabetzen joan ginen arian-arian. XXI. mendeko aurrerapenak, ordea, tsunami eran datozkigu, ezin moldatzeko abiaduran. Herritar arruntarentzat zaila da berritasunaren sukarrorretara egokitzea eta bere ohiko jarduna horren azkar aldatzea, nahiz badirudien horretan tematuta daudela teknologiaren enpresa erraldoiak, gure ohiturak ahalik eta abiadura handiengan aldatzen, selekzio teknologiko bat egiten, adinekoak eta gizaki analogikoak lehenbailehen bazter uzteko. Gaizki ulertu ditugu, nonbait, Horazioren hitzak. 'Carpe diem' ezagunarekin baikortasuna zuen ardatz, bizitzarekiko

grina, bizipoza, eta ez abiadura edo azkartasuna. Ahalik eta azkarren kontsumitzera bultzatzen gaitu abiadura bizi eta eroaldi horrek. Merkatua bihurtu da gure jainko berria, gure asmo estetiko eta moral berria, denaren neurgailua. Errutinaren morroi ez ezik, pentsamendu azkarraren morroi ere bihurtu gara, eta hezkuntza ere norabide horretan doa. Gai humanistak oztopo dira estrategia ekonomikoentzat, BPGren igoera delako helburua eta pentsamolde alternatiboek herritar kritikoago bat ekar dezaketelako. Merkatuak agintzen dizkigu orain garai batean erlijioek agintzen zizkiguten salbaidide eta zorion bideak. Freuden ustez, gizartean aurrerabidea posible izateko, gizabanakoak bere instintu nagusiak (janaria, sexua, boterea) menderatzera behartzen zituzten legeak egin zituen. Instintu horien asebetetzean oinarritzen da, hain zuzen ere, kontsumo-gizartearen arrakasta. Merezki du Maffeiren liburua patxadaz irakurtzea, irakurketaren serotoninan murgiltzea.

Holokaustoko saguak

JON MARTIN-ETXEBESTE

Vladek Spiegelman nolabait bizirauteko moldatu zen Auschwitz. Bere semeak odisea hura nobela grafiko batean jaso zuen eta emaitza Pulitzer saria irabazi zuen lehen nobela grafikoa izan zen (1992an). Animaliak erabiltzen ditu ilustratzaileak kolektiboak seinatzeko: katuak dira naziak eta saguak juduak. Poloniako bizimodu lasaia deskribatzen du liburuaren hasieran, baina gradualki juduen aurkako herra areagotzen hasiko da, harik eta guztiz isolatzera eta umiliatzera iristen diren arte. Holokaustoren gordina izan zen bezain gogor erakusten du liburuak; bizitza eta heriotza zoriaren mende zeuden askotan. Aita bizirik ateratu zen, baina ez onik. Gertakizunetatik urte askotara ere garai hartan hartzen zituen neurriak hartzen jarraitzen du, eta pasarte hura gairatu eta bakean hazi diren belaunaldikoentzat jasanezina da haren portaera. Liburuan uler liteke



MAUS
ART SPIEGELMAN
Astiberri.
296 orr.
24 euro

nola egin zion iskin behin baino gehiagotan gas-ganberari: Vladeken sal-erosketarako, estrategiarako eta lanerako gaitasunak salbatu zuen behin eta berriz. Haren hizkuntza gaitasunak ere giltzarri izan zen: poloniera zuen ama hizkuntza, baina alemanez eta ingelesez ere moldatzen zen.

Hain zuzen ere hizkuntzarena da liburuaren kontraste nabarmenena. Aitaren hizkera berriaz da akastuna. Hizkuntzak bereganatzeko erraztasuna duen pertsona ireki baten ahozko jarioaren isla da. Hala behar du, egoera informalean jasotako elkarrizketen bidez kontatzen dela-

ko. Julen Gabiriak itzuli du nobela, eta hizkera berri bat sortu behar izan du protagonistarentzat: nor-norkaren alterazio diatopikoak sartu ditu, zenbait akats eginarazi dizkio pluraletan eta iraganeko aditzetan... hori guztia, jatorrizko bunbuiloetako espaziotik pasatu gabe eta ulermen oztopatu gabe. Art Spiegelman gorpuztu du idazle galdakoz-tarrak itzulpenaren bitartez: aita ezin ulertua eta ezin jasana nolabait leuntzeko balioko dio dokumentazio lanak, eta sakonean bere historia, eta bere burua, ezagutzeko aukera eskainiko dio.



LABUR LABUR

'Neoloteka', euskarazko esamolde eta hitz berrien ataria

EL CORREO

Euskara, munduko beste hizkuntza guztiak bezala, etengabe ari da eguneratzen,

errealitate, uste, gailu eta ideia berriei egokitzen, eta beroriek izendatzeko hitz eta esamolde berriak sortzen, nola bere baliabideak erabiliz (eratorpena, konposizioa, zabaluntza semantiko...) hala beste hizkuntzetatik mailegatuta.

Horren aurrean, Uzei terminologia eta lexikografia

zentroak 'Neoloteka' sortu du, «euskarazko hitz berrien ataria». Euskarazko «hitz eta esamolde berriak» bilduko ditu, eta etengabe osatuko du Uzeik: «Hilero, 20 sarrera inguru gehituko dizkiola aurreikusten dugu», azaldu dute.

Zer da, baina, hitz edo esamolde berri bat? Euskaltzaindiaren Hiztegiaren perezko azken bertsio argitaratua, 2016koa, hartuko du Uzeik erreferentziatzat: hiztegi arauemaile horretan ageri diren formak ez dira Neolotekan agertuko.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

2 M. Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

3 Miñan

Ametz Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Euskal Herriko Historia...

J. Asiron/M. Altzueta. Txalaparta

EZ FIKZIOA

1 Infinitua ihi batean

Irene Vallejo. Pamiela

2 Berpiztu

Kepa Junkera. Infernuko Auspoa

3 Ganorexia

Iñaki Seguro. Alberdania

4 Sorginak

Toti Martinez de Lezea. Erein